

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

2751

AGINDUA, 2024ko maiatzaren 27koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baita Euskadiko Podologiako Elkargo Ofizialaren estatutuetan egindako aldaketa.

2022ko abenduaren 14an, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailean sartu zen Euskadiko Podologiako Elkargo Ofizialaren estatutuen aldaketa onartzeko eskaera. Aldatzen den testua Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuaren 2009ko azaroaren 11ko Aginduaren bidez onartutakoa da, zeina ebazpen horren eranskin gisa argitaratu baitzen 2010eko otsailaren 10eko (27. zk.) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian –2010eko martxoaren 1eko (40. zk.) EHAA argitaratutakoaren arabera zuzendua–.

Estatutuak aldatzeko erabakia 2022ko abenduaren 2an hartu zen, elkargokideek aho batez erabakita, ezohiko batzar orokorrean bilduta, organo horretako idazkariak 2022ko abenduaren 14an presidentearen oniritziarekin emandako ziurtagirian jasota dagoen bezala.

Osasun Saileko Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzaren eta Podologoek Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiaren aginduzko txostenak jaso dira. Zuzendaritza hori eskuduna da elkargoak ordezkaturako lanbidea kontuan hartuta. Era berean, Lehiaren Euskal Agintaritzaren txostena jaso da.

Txosten horietan iradokitako aldaketak egin ondoren, testua berriro aurkeztu zitzaion batzarri, azter zezan, eta, 2023ko irailaren 12ko ezohiko bilkuran, ondoriozko testua onartu zuen, idazkariak 2024ko otsailaren 5ean emandako ziurtagirian jasotakoaren arabera, presidentearen oniritziarekin.

Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutuak 10.22 artikuluan ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du lanbide-elkargoen arloan eta lanbide tituludunen jardueran, hargatik eragotzi gabe Espainiako Konstituzioaren 36. eta 139. artikuluetan xedatutakoa.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak eman behar du, agindu bidez, estatutuak aldatzeko espediente honi buruzko ebazpena, honako arau hauetan xedatutakoarekin bat etorriz: Profesionalen Elkargoei eta Kontseiluei eta Tituludun Lanbideen Erregistroaren Araudiari buruzko otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuaren 38.6 artikulua; Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailearen egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.1.n) artikuluan xedatutakoari dagokionez.

Espedientearekin batera, funtsezkotzat jotzen diren dokumentu eta datu guztiak aurkeztu dira. Horrela, bereziki betetzen dira Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 33. artikuluan eta otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuaren 38. artikuluan eskatutako betekizunak. Gainera, estatutuetan egindako aldaketak bat datoz aplikatzekoak diren lege eta erregelamenduetan xedatutakoarekin.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskadiko Podologiako Elkargo Ofizialaren estatutuetan egindako aldaketa onartzea.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Aldatutako estatutuak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, agindu honen eranskin gisa, eta interesdunei jakinaraztea.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta, beronen aurka, zeinak amaiera ematen baitio administrazio-bideari, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburu honen aurrean, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 27a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.

ERANSKINA

EUSKADIKO PODOLOGIAKO ELKARGO OFIZIALAREN ESTATUTUAK

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Izena eta izaera.

Euskadiko Podologiako Elkargo Ofiziala zuzenbide publikoko korporazio bat da, nortasun juridiko propioa duena eta bere helburuak eta egitekoak betetzeko erabateko gaitasuna duena.

2. artikulua.– Oinarrizko printzipioak.

Elkargoaren barne-egitura eta jardunbidearen funtsezko printzipioak honakoak dira: kideen berdintasuna, gobernu organoen hautapen demokratikoa, akordioak gehiengoz hartzea eta jarduera askea legeak errespetatuz. Genero-ikuspegi inklusiboa errespetatuz, genero bat adierazten duten hitzek edo terminoek genero posible guztiak barne hartzen dituzte, eta idazketa konplexuegia ez egiteko erabiltzen dira, irakurketa erraza eta ulergarria sustatuz.

3. artikulua.– Lurralde-eremua.

Elkargoaren lurralde-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa da.

4. artikulua.– Egoitza, ordezkariak, hizkuntza ofizialak eta elkargoaren ikurra.

1.– Elkargoaren egoitza Bilbon dago, Plaza zirkularra 4, 3. solairua, 7. esk. (Bizkaia).

2.– Hiru lurralde historikoetan jarriko dira Batzorde Iraunkorrak, zeinek euren eremuan elkargoaren ordezkariak izango baitute.

3.– Hizkuntza ofizialtasun bikoitza.

1) Euskara eta gaztelania dira Elkargoko hizkuntza ofizialak.

2) Bi hizkuntzen erabilera berdintasun baldintzetan normalizatzeko behar diren neurriak hartuko ditu Gobernu Batzordeak.

4.– Elkargoaren ikurra: eskuin oinaren soslaia, arrosa kolorekoa, alde zuzenak ez dituen koadro baten barruan goitik beherako lerro marroia ezker aldean, zeinaren ondoan –letra larriz– «Euskadiko Podologiako Elkargo Ofiziala» irakur baitaiteke, eta horren azpian, beste hau, letra mota berarekin: «Colegio Oficial de Podología del País Vasco».

5. artikulua.– Araubide juridikoa.

Elkargoa estatutu hauen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean den legediaz eta Estatuaren oinarrizko legediaz arautuko da.

6. artikulua.– Elkargoaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren arteko harremana.

Korporazio eta erakundeekin loturiko kontu guztietan, elkargoak horretarako ezarritako organoaren bitartez izango ditu harremanak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin.

Bere lanbideko edukiei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoan osasun arloan eskumenak izendatuta dituen sailekin jarriko da harremanetan.

7. artikulua.– Elkargoaren eta beste erakunde profesional eta publiko batzuen arteko harremana.

1.– Euskadiko Podologiako Elkargo Ofiziala Estatuaren legedia orokorrak dioenaren arabera jarriko da harremanetan –Estatuan– Lanbideko Kontseilu Nagusiarekin, sortzen bada.

2.– Aurreko paragrafoak agintzen duena gorabehera, Euskadiko Podologiako Elkargo Ofizialak Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko beste elkargo eta elkarteekin elkarrekikotasun eta lankidetzaz hitzarmenak izenpetu ahalko ditu.

3.– Euskadiko Podologiako Elkargo Ofizialak atzerriko eta nazioarteko profesionalen erakundeekin egokitzat jotzen dituen harremanak izan ahalko ditu, indarrean den legediaren barruan.

8. artikulua.– Elkargoaren eginkizunak eta banaketa.

1.– Profesionalen Elkargoei buruzko 18/1997 Legearen 27. artikuluekin bat etorritik, Euskadiko Podologiako Elkargo Ofizialak Euskal Autonomia Erkidegoko kontseiluentzat Legeak zehazten dituen egitekoak hartzen ditu.

2.– Lurralde Historiko bateko elkargoko kideen erdiak eta bat gehiagok elkargo burujabe bat osatzea eskatzen badu, hori egiterik izango dute, eskaria dagokion ordezkartzaren bitartez eginda. Memoria justifikagarria aurkeztu beharko da, zeina otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuaren II. tituluko bigarren kapituluari (Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei eta Tituludun Lanbideen Erregistroaren Arautegiari buruzkoaren) edo horren ordezeko arauari egokitu beharko zaien.

II. TITULUA

ELKARGOAREN HELBURUAK ETA EGINKIZUNAK

9. artikulua.– Helburuak.

Euskadiko Podologiako Elkargo Ofizialak helburu behineko hau du:

Podologoaren lanbidea ordezkatzeko eta defendatzeko, bai eta elkargokideen interes profesionalak ordezkatu eta defendatzeko ere, gizarteak dituen interes eta beharrekiko bat etorritik.

10. artikulua.– Eginkizunak.

Euskadiko Podologiako Elkargo Ofizialari, bere lurralde-eremuaren barruan, egiteko hauek dagozkio:

- a) Lanbidearen jarduna antolatzea, legeek ezartzen duten esparruaren barruan, eta zaintzea.
- b) Lanbidearen jardunerako baldintzak arautzeko garaian, botere publikoei aholku ematea.
- c) Lanbidearen interes orokorrak ordezkatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan, edozein eremutako herri administrazioekiko harremanetan, bereziki.
- d) Elkargoko kideen lanbideko interesak defendatzeko.
- e) Elkargoko kideen eta gainerako lanbideen arteko lanbide-harremanak sustatzea.
- f) Ahalegintzea jardueraren profesionala herritarren beharrei eta interesari egokitu dakien, batik batik pazienteen berme-arauak ezagutu eta betetzeko.

- g) Lanbideko etika eta herritarren eskubideekiko errespetua zaintzea eta lanbide eta elkargoaren inguruko gaietan diziplina-jurisdikzioa erabiltzea. Arlo honetan kontu berezia izango dira genero berdintasuna eta herritar behartsuenak.
- h) Administrazioaren kontsulta-organoetan parte hartzea, hark hala eskatzen duenean, lanbidearen inguruko gaietara dagokienean.
- i) Lanbidea ordezkatu eta defendatzea administrazio publikoaren, erakundeen, epaitegien eta gainerako pertsona publiko eta pribatuen aurrean; gainera, lanbidearen interesekin loturiko auzietan parte hartzeko eskubidea izango du.
- j) Podologoek eta beren lanbideko jardunari eragiten dioten lanbide-intrusismoko kasu guztiak eragozteko eta, beharrezkoa bada, epaitegietara jotzea, lanbide hori erabiltzen denean edo erabili nahi denan.
- k) Elkargoan kide tutakoen intereseko diren lanbide- eta zerbitzu-jarduerak, kulturalak, laguntza-koak, prebentziokoak eta halakoak antolatzea.
- l) Etengabeko prestakuntzarako ekintzak prestatzea, hitzaldi, mintegi eta jardunaldien bitartez; aldizkariak, liburuxkak eta zirkularrak argitaratzea; eta, oro har, lanbidea teknika, zientzia eta humanistikaren alorrean hobetzen lagunduko duten baliabideak martxan jartzea.
- m) Gobernuak behar den moduan jarduteko egokitzat jotzen diren barne-arauak idaztea; arauok inoiz ez dira estatutuetan agindutakoaren aurkakoak izango.
- n) Bitartekari-lana betetzea eta arbitraje-prozedura erabiltzea, kide tuen artean lanbide-kontuak direla-eta sortutako auzietan.
- o) Lanbideko ordainsariei loturiko gaiak eztabaidatzen direnean, prozedura judizialean edo administrazio-prozeduretan txostenak eta irizpenak igortzea.
- p) Elkargoko kideek eskatuta, lanbideko zerbitzu-sari, ordainketa eta eskuratzeen kobraketez arduratzea.
- q) Lege orokor eta bereziak, barne-estatutuak eta araudiak, edo elkargoko organoek euren eskumeneko arloetan hartutako erabaki eta arauak betetzea eta kide tui betearaztea.
- r) Lanbidearen inguruko arau deontologikoak jaso eta lantzea.
- s) Lanbidearen jardunerako baldintza orokorren gainean Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuak prestatzen dituen arau guztien eta dagozkien eginkizun eta eremuen berri ematea.
- t) Lanbideko interesentzat onuragarriak diren eta elkargoaren helburuak lortzeko bideratzen diren gainerako egitekoak eta indarrean den legediarekin bat etorritik izendatzen zaizkionak.
- u) Lanbidea egikaritzeko gaitasuna egiaztatzea, hala eskatzen duten erakunde publiko eta pribatuen aurrean.
- v) Publizitateari buruzko arauen ezarketa sustatzea; arauok Deontologia Kodean garatutako dira.
- w) Elkargoko kideek aseguramendu-betebeharra betetzen dutela bermatzea.

III. TITULUA

ELKARGOKIDE EGITEA

I. KAPITULUA

ELKARGOKO KIDEAK ETA MOTAK. KIDE EGITEA, HORI
UKATZEA ETA KIDE-IZAERA GALTZEA

11. artikulua.– Elkargoan sartzea.

1.– Elkargora sartzeko eskubidea Podologiako unibertsitate-diploma duen edonork dauka, 649/1998 Errege Dekretuaren eta hori garatzeko arauen arabera; bai eta, arau honen bidez egin-dako lanbide-eskubideen aintzatespenaren indarrez, 727/1962 Dekretuaz araututako Podologo diploma dutenek ere.

2.– Atzerritarrak Estatu espainiarrean lanbidean aritzeko baldintzak betetzen dituztenean sartu ahalko dira elkargoan.

3.– Europar Batasuneko herritarrei, sartzen diren unean araudi juridikoan integratutako titulazio profesionalak eta akademikoak aitortzeari buruz indarrean dauden arauak aplikatuko zaizkie.

12. artikulua.– Lanbidean aritzea.

Lanbidean jarduteko, ezinbestekoa izango da elkargoan sartuta egotea eta legeetan eta estatu-tuetan eskatzen diren baldintzak betetzea, betiere Estatuko lege batek hala eskatzen badu.

13. artikulua.– Elkargoko kideak.

Euskadiko Podologiako Elkargo Ofiziala osatzen duten kideak jardunekoak, ez-jardunekoak eta ohorezkoak izan daitezke.

1.– Eskatzen diren baldintza guztiak beteta dituztela, Elkargoan sartu diren eta lanbidetzat podologia duten pertsona naturalak dira jardunekoak.

2.– Elkargoan sartu diren eta egun podologo lanetan ez dabiltzan pertsona naturalak dira ez-jardunekoak.

3.– Ohorezko kideak hauek izango dira: lanbidearen alde egindako zerbitzu nahiz merituengatik, kideen biltzar nagusiaren iritziz eta Gobernu Batzordeak proposatuta, izendapen hori jasotzea merezi duten pertsona naturalak nahiz juridikoak.

14. artikulua.– Elkargokide izateko eskabidea.

1.– Elkargokide izateko baldintzak, lanbideko titulua izateaz gain, hauek izango dira:

a) Eskaera egin beharko zaio, idatziz, Gobernu Batzordeari.

b) Titulua egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira.

c) Ezgaitzeko epai judizial irmorik ez izatea.

2.– Gobernu Batzordeak hilabete biko epea izango du, eskabidea aurkeztzen denetik hasita, ebazpena emateko, eta eskatzaileari jakinarazi beharko dio, idatziz, hartutako erabakia. Erabakia aldekoa bada, interesdunak sartzeko kuota ordaindu beharko du, adierazten zaion epearen barruan.

15. artikulua.– Elkargokide izateko eskabidea ukatzea.

1.– Elkargokide izateko eskabidea kasu hauetan ukatuko da:

a) Sartzeko eskabidearekin batera aurkeztutako agiriak nahikoak ez direnean edo horiek legiti-
moak diren zalantzak daudenean, edo eskatzaileak kide izateko beharrezko diren datu eta agiriak
faltsutu egin dituzenean.

b) Eskatzaileak lanbidea egikaritzeko desgaikuntza-epai irmoa badu.

c) Eskatzailea lanbidean aritzeko desgaikuntza-zigor bat betetzen ari denean.

2.– Elkargokide izateko eskabidea ukatzeko erabakia interesdunari jakinaraziko zaio, behar
den bezala arrazoituta, eta interesdunak erabaki horren aurka egin ahal izango du, hilabeteko
epean, Gobernu Batzordeari berraztertze errekurtsoa aurkeztuta. Behin betiko ukatze-erabakia-
ren aurka, interesdunak administrazioarekiko auzietako jurisdikziora jo ahal izango du.

16. artikulua.– Elkargokide izaera galtzea.

1.– Elkargokide izaera kasu hauetan galduko da:

a) Heriotza.

b) Legezko ezgaitasuna.

c) Diziplina-zigor batek banatzea agintzen duenean.

d) Borondatezko baja, idatziz jakinarazitakoa.

e) Nahitaezko baja, ekonomia betebeharrak, sartzeko kuota eta elkargokide izateko ezarritako
gainerako kuotak ez betetzeagatik.

2.– Ekonomia betebeharrak ez betetzeagatik nahitaezko baja eraginkorra izan dadin, espe-
diente sumario bat instruitu beharko da. Espediente horretan idatzizko errekerimendu bat egingo
zaio eraginpean dagoenari, hiru hilabeteko epean zorrak kitatu ditzan. Epe hori igaro eta agindu-
takoa bete gabe utzi badu, baja emateko erabakia hartuko da, zeina espresuki adieraziko zaion
interesdunari.

3.– Elkargokide izaera galdu arren, jada sortuta dauden betebeharrak bete beharko dira. Bete-
behar horiek interesdunari edo beren oinordekoei eskatu ahalko zaizkie.

II. KAPITULUA

ELKARGOKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

17. artikulua.– Elkargokideen eskubideak.

Kide guztiek estatutu hauetatik datozen zerbitzu, gaitasun eta pribilegioak izateko eskubidea
izango dute, eta, gainera:

a) Ordezkaritza-postuetarako eta zuzendaritza-karguetarako kideak hautatzeko eta hautatuak
izateko.

b) Erakundearen jardunen eta bizitzaren berri eta lanbidean aritzeari buruzko gaien berri
izateko.

- c) Ordezkarri izatekoa, hala agintzen zaien kasuetan.
- d) Elkargoaren ekonomia eta administrazio kudeaketan parte hartzea, lege edo estatutuetako arauen arabera, eta lanbiderako interesgarriak diren gaien gainean iritzia libreki ematekoa.
- e) Elkargokide gisa dituzten interesen defentsa egiteko beharrezkoak diren egintzak burutu eta baliabideak erabiltzekoa.
- f) Interes legitimoen defentsa egiteko lanbide-jardunean Elkargoaren babesa izatekoa.
- g) Elkargoak ordezkatuak izatekoa, Gobernu Batzordeak hala erabakitzen duenean, epaitegi, agintari, erakunde eta entitate publiko eta pribatuen aurrean, lanbideko jardunarekin lotuta dauden egintzak, salbuespenak eta defentsak egin ahal izateko.
- h) Elkargoaren biltzar nagusietan parte hartzekoa, hitzarekin eta botoarekin.
- i) Edozein kideren lanbideko edo elkargoko jardueraren aurka, Gobernu Batzordeari kexak aurkeztekoa.
- j) Elkargoaren esku dauden datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak erabil ditzake. Datuak sorrera-helbururako erabiltzeko eta hirugarrengo batzuen esku ez uzteko ere exiji dezake elkargokideak.
- k) Estatutuetako 24.1) artikuluan ezartzen den prozedurari jarraituz, Gobernu Organorako titularrak zentsura-botoaren bidez kargutik kentzekoa.

18. artikulua.– Elkargokideen betebeharrak.

Lanbidean legez aritzeko ezinbesteko baldintzak dira podologoentzat:

- a) Estatutu hauetan, horiek garatzen dituzten arauetan eta Elkargoak har ditzakeen erabakietan jasotako manuak betetzea.
- b) Elkargoak bere iraupenerako onartutako kuotak eta eskubideak, ohikoak nahiz ohiz kanpo-koak, ezarritako epeetan ordaintzea.
- c) Elkargoarekin batera, kudeaketa organoei dagokienez, behar den diziplina zaintzea; eta, kideen artean, lanbideko harmonia eginkizunak.
- d) Lanbideko kideren bati edo taldeari eragin diezaioketen egintzen berri ematea Elkargoari; egintza horiek duten garrantziaren arabera, korporazioak parte ahalko du ofizialki.
- e) Elkargoko kideak bere helbidea jakinarazi beharko dio Elkargoari, jakinarazpenak egiteko, elkargoko ondorio guztietarako. Helbidea aldatuz gero, ondorio horietarako, espresuki jakinarazi beharko dio.
- f) Publizitatea onartzen da, baina gomendio hauek aintzat hartuta:
 - Publizitate oro lanbidearen duintasuna errespetatuz egin beharko da.
 - Publizitateak egiazkoa izan beharko du eta frogatutako ezagupen, esperientzia eta ospearen arabera.

IV. TITULUA

GOBERNU ORGANOAK

I. KAPITULUA

BILTZAR NAGUSIA

19. artikulua.– Biltzar Nagusia.

1.– Biltzar nagusia da Elkargoko organo burujabea. Hori dela eta, hartzen dituen erabakiak elkargoko kide guztiek bete beharrekoak izango dira; hortaz, bertan ez daudenek, disidenteek eta abstenitzen direnek ere bete egin beharko dituzte.

2.– Eskubide guztiak dituzten elkargokide guztiek parte hartu ahal izango dute Biltzar Nagusian.

20. artikulua.– Biltzar nagusien motak.

1.– Ohikoak eta ezohikoak izan daitezke biltzarrak.

2.– Ohiko Biltzar Nagusia, urtean behin, behintzat, bilduko da, ekitaldia itxi eta hurrengo bi hilabeteen barruan. Kontuen balantzea eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua onartuko dira. Amaitu-tako ekitaldiko memoriaren aurkezpena jaso beharko da Batzarrerako gai-zerrendan, eta, halaber, hurrengo ekitaldian gauzatu beharreko jarduera-planaren irakurketa.

3.– Ezohiko biltzar nagusia Gobernu Batzordeak erabakitzen duenean egingo da. Elkargoko kideen % 20k edo jarduneko kideen % 10ek eskatuta hartuko da deialdia egiteko erabakia, gai-zerrenda zehatz batekin. Gai-zerrendan azaltzen diren gaiei buruzko erabakiak baino ez dira hartuko.

21. artikulua.– Deialdiak.

Biltzar nagusiaren bilerak idatziz eta banan-banan jakinaraziko dira, 15 egun lehenago gutxienez; eguna, ordua, lekua eta gai-zerrenda adierazi beharko dira.

22. artikulua.– Biltzarraren bileren araudia.

Biltzar nagusietako lehendakari Elkargoko lehendakaria izango da, eta, idazkari, elkargoko idazkaria. Lehendakariak zuzenduko ditu eztabaidak, hitza eman edo kendu ahal izango du eta elkargokideei ohartarazi azalpenetan denbora gehiegi pasatzen badute, eztabaidagaiari buruzko azalpenak ez badira, edo aginteari, kideren bati, Gobernu Batzordeari edo Biltzar Nagusiarri errespeturik erakusten ez badie; bi bider ohartarazi ondoren kasurik egiten ez duena lokaletik bidali ahal izango du. Asistentzia eta parte-hartzea urrunekoa izan daiteke, aldibereko bitarteko telematikoen bidez, deialdiaren aurretik Gobernu Batzordeak berariaz hala adosten badu, betiere parte hartzen duen elkargokidearen nortasuna bermatuta badago.

Biltzarrak dirauen bitartean ezin izango dira erabili irudiak eta hitzak erreproduzitzen dituzten ikus-entzunezko bitartekoak; idazkariak erabili ahal izango ditu, ordea, akta egiteko lagungarri izan dakizkion.

Elkargoko kideak beste kide batek soilik ordezkatu ahal izango ditu. Horretarako, idazki bat emango zaio Gobernu Batzordeari, ordezkaritza zein kideri eta zein biltzar nagusitarako (eguna

jarri beharko da) ematen zaion argi eta garbi azalduz. Agiria behar den moduan izenpetuko dute kide biek eta bertan adierazten den biltzar nagusirako baino ez du balioko.

Kide bakoitzak ordezkaritza bi eduki ahal izango ditu, gehienez.

Biltzar Nagusiaren eraketa baliozkoa izango da lehenengo deialdian elkargokideen gehiengo osoak parte hartzen badu, bertaratuta edo ordezkapenez. Bigarren deialdian, zeina ordu erdi geroago egingo baita, baliozkoa izango da, kideen kopurua, presente daudela nahiz ordezkatuta, edozein dela ere.

Aztergaien zerrendan ageri diren gaiei buruzko erabakiak hartu ahal izango dituzte soilik.

Bozketak hiru modutakoak izan daitezke: ohikoak, izendunak edo isilpekoak. Lehendakariak ebatzen duenean edo biltzarrera joandakoen % 20k eskatzen duenean egingo dira isilpean. Bozketak batean ahobatezkotasuna dagoela joko da, lehendakariak eztabaidagaia onartzen den ala ez galdetzen duenean, elkargokideetako inork ez badu aurkakoa adierazten. Nolanahi ere, lehendakariak proposatu ahal izango du bozketa egitea.

Bozketa arrunta egiaztatzeko, lehenengo eztabaidagaia onartzen dutenak altxatuko dira, gero onartzen ez dutenak eta, azkenik, abstenitzen direnak. Horrela egingo da elkargokideren batek eskatzen duen aldi oro. Bozketa arrunt gisa joko da, baita ere, besoa jasota egiten dena.

Bozketa izenduna egiteko, bertaratutako elkargokide bakoitzak izen-abizenak esango ditu, eta, segidan, «Bai», «Ez» edo «Abstentzioa» hitza, eta gutxienez hogeit hamar elkargokideek eskatzen dutenean egingo da.

Paper bidezko bozketa batzartutakoen % 20k eskatzen duenean edo lehendakariak proposatzen duenean egingo da.

Biltzarrera joandakoen eta ordezkaturakoen botoen gehiengo soilaz hartuko dira erabakiak, estatutuetan gai jakin batzuetarako besterik adierazten ez bada.

23. artikulua.– Akten liburua.

Biltzar nagusietan aktak idatziko dira. Aktak lehendakariak eta idazkariak sinatuko dituzte eta liburu batean erregistratuko dira. Aktek, onartu ondoren, agiri fidagarri eta fede-emaile izaera izango dute eztabaidei eta hartutako erabakiei dagokienez, eta bertan kontsignatutako egitateengan ez da inolako zuzenketarik ez aurka egiterik onartuko. Biltzarreko akta biltzarrak berak onartuko du eta betearazteko indarra izango du.

24. artikulua.– Biltzar nagusiaren eskumenak.

Biltzar Nagusiaren eginkizunak eta eskumenak hauek dira:

- a) Gobernu Batzordea aukeratzea.
- b) Gobernu Batzordeak aurkeztutako jardueren urteko memoria onartzea, kasua bada.
- c) Ekitaldiko balantzea eta emaitzen kontua onartzea, kasua bada.
- d) Aurrekontuak onartzea.
- e) Gobernu Batzordearen kudeaketa ezagutzea.
- f) Barne araubiderako Araudia onartzea.
- g) Deontologia Araudia onartzea.

- h) Estatutueta aldaketak onartzea.
 - i) Aldizkakoak ez diren kuotak eta derramak onartzea.
 - j) Gobernu Batzordeak bere eskumenpean uzten dizkion gaiak ebaztea.
 - k) Elkargoa bat egiteko, xurgatzeko, banatzeko, haren izena aldatzeko eta elkargoa desegiteko proposamenak onartzea; horretarako, beharrezkoa izango da biltzarrera joandakoen erdia eta bat gehiagoren gehiengoa lortzea.
- l) Gobernu Batzordearen edo haren kideen kudeaketa zentsuratzea. Eraginkorra izateko, biltzarrera joandakoen bi herenen gehiengoa beharko da. Eraginpeko gobernu organo guztietako titularren edo, orokorra izanez gero, guztien kargu uztea ekarriko luke zentsura onartzeak.

II. KAPITULUA

GOBERNU BATZORDEA

25. artikulua.– Osaera.

1.– Gobernu Batzordea honako hauek osatuko dute: lehendakaria, lehendakariordea, idazkaria, diruzaina eta gutxienez bokal bat, eta gehienez bost bokal.

2.– Lurralde historiko oren ordezkaritza paritarioa bultzatuko da.

3.– Lurralde historiko bakoitzean, batzorde iraunkor bat osatuko da; bi eta bost kide bitartean izango ditu, eta lurralde historiko bakoitzean bizi diren kideen bileran hautatuko da. Horien egitekoa elkargoaren gobernu batzordearen antolamendua sendotzea izango da. Batzorde iraunkor horretako berezko kide izango dira Gobernu Batzordean dagokion lurralde historikokoak diren kide hautatuak.

26. artikulua.– Gobernu Batzordearen egitekoak.

Gobernu Batzordeari elkargoa zuzentzea eta administratzea dagozkio, eta biltzar nagusiak hartutako erabakiak gauzatea. Gobernu Batzordearen eskumenak ondokoak dira:

- a) Biltzar nagusiaren erabakiak, estatutuak eta elkargoari eragiten dion indarreko legedia betetzea eta betearaztea.
- b) Elkargokide izateko eskaeren gainean erabakiak hartzea.
- c) Aldizkako kuoten zenbatekoa finkatzea.
- d) Elkargoaren ondasunak administratzea, bai eta kideek ordaindu beharreko kuotak biltzea ere.
- e) Elkargoaren interesen defentsarako hartu beharreko neurriak hartzea.
- f) Diziplina-zehapenak jartzea, dagokion espedientea izapidetu ondoren.
- g) Elkargoaren egitekoak hobeto betetzeko beharrezko diren lan batzordeak eta taldeak sortzea edo berregituratzea eta desegitea, hori justifikatzen duten arrazoiak daudenean.
- h) Elkargoko kideen egitekoak eta eskumenak betetzen diren zaintzea.
- i) Ospe handiko pertsoneri eta erakundeei sariak eta goraipamenak ematea proposatzea asanbladari, eta, hala behar izanez gero, horiek ematea, betiere estatutuen 8. tituluak dioena betez.

j) Ohiko eta ezohiko biltzarren egunak zehaztea.

k) Eta hemen adierazita ez badago ere, estatutu hauetatik erator daitekeen beste edozein eginkizun.

27. artikulua.– Karguen iraupena.

1.– Karguen iraupena lau urtekoa izango da; eta berriz ere aukeratu ahalko dira.

2.– Gobernu Batzordeko kideren batek kargua uzten badu, arrazoia edozein dela ere, batzordeak ordezeko bat izendatuko du bitarteko legez, arauzko lehen hautaketa egiten den arte.

3.– Zelan eta Elkargo Ofiziala legeak aitortutako zuzenbide publikoko korporazioa den, hautagaiei dagozkien obligazioak betetzeak –korporazioaren eta lanbidearen ondorioetarako– elkargoaren obligazioak betetzeari dagozkion kontsiderazioa eta izaera izango ditu.

4.– Elkargoko kargu bat hautapen bidez izendatzen denean, izendapen horrek ahalmena ematen dio agintaldian karguaz libreki baliatzeko; ahalmen hauek izango ditu:

a) Elkargo-ordezkaritzari dagozkion gaiei buruz iritzia ematekoa, askatasunez.

b) Elkargoaren eskubideak eta interesak, bere karguaren ardurapean utzitakoak, defendatzeko behar diren ekintzak sustatzeko ahalmena.

c) Estatutuetako araei jarraituz korporazioko gobernu-organoetako gainerako kideekin bilerak egiteko ahalmena, elkargoarentzat interesgarri diren gaien inguruan eztabaidatzeko, erabakiak hartzeko eta kudeatzeko.

d) Bere egitekoak askatasunez bete behar dituzenez, horren kontrako usurpazio, abusu eta esku-sartze ororen aurka babestua izatekoa.

e) Kasu bakoitzean aplikagarriak diren neurrian, jarduera profesionala eteteko ahalmena izatea, elkargoaren ordezkari izateak horretara behartzen duenean.

5.– Aurreko artikuluen ondorioetarako, herri edo barrutirik hurbileneko elkargokideek –lanbideko deontologiak eta solidaritateak hala behartuta– ordezkari karguari dagozkion zerbitzuak betetzea hartuko du bere gain, baldin eta titularren arrazoi korporatiboengatik desplazatu behar badute, eta ordezkari ofizialen baldintza berberetan egingo dute.

6.– Ordezkaritza-kargu hautetsiek elkargo-erakundeek arauz deitutako batzarretan parte hartzeak indarrean dauden xedapenek kasu bakoitzerako adierazitako ondorioak izango ditu.

7.– Ordezkaritza duen karguak lanpostutik joateko behar berri eman beharko dio kasuan kasuko agintariari: deialdiaren testuaz justifikatu beharko du lanpostuan ez egotearen arrazoia.

8.– Gobernu Batzordearen kideen erdiek baino gehiagok utziko balute beren kargua, hilabeteko epean hauteskundeetarako deia egingo da.

28. artikulua.– Bilkurak.

1.– Gobernu Batzordea bi hilabeterik behin bilduko da ohiko eran, deialdia lehendakariak egin eta gero. Ezohiko bilerak behar diren guztietan egingo dira, lehendakariak edo biltzarreko kide batek eskatuta. Asistentzia eta parte-hartzea urrunekoa izan daiteke, aldibereko bitarteko telematikoen bidez, baldin eta idazkariak berriaz adosten badu, alde zuzenetik, deialdian.

Zitazioak banan-banan egingo dira eta zortzi egun lehenago bidaliko dira. Presa egonez gero, ahoz egin ahal izango da deia, eta idatzizko jakinarazpen batekin berretsiko da. Erabakiak bertaraten diren kideen gehiengoaz hartuko dira. Berdinketarik gertatuz gero, lehendakariaren botoak ebatziko du.

2.– Beharrezkoa da kide guztiak joatea. Arrazoirik eman barik jarraian hiru biltzarretara joateari huts egiten bazaio, edo jarraian izan gabe, urtebetean sei bileratara joateari huts egiten bazaio, kargua utzi egin dela esan nahiko du. Aldez aurretik lehendakariak agindeia egingo du, idazkariaren proposamenez. Huts egitea idatziz justifikatu beharko da zortzi eguneko epean, biltzarra egin denetik hasita.

3.– Erabakiak hartzeko ezinbestekoa izango da biltzarra osatzen duten kideen erdia eta bat gehiagoren quoruma izatea. Batzordearen eztabaidak isilpekoak izango dira.

29. artikulua.– Gobernu Batzordeko lehendakariaren eskumenak.

Lehendakariaren eskumenekoak dira:

a) Elkargoaren ordezkari izatea elkargoak herri agintariekin, erakundeekin, edozein motatako korporazioekin eta pertsona fisiko nahiz juridikoekin dituen harremanetan.

b) Elkargoaren zuzendaritza, eta presako kasuetan biltzarraren eskumenekoak ez diren kasuak ebaztea. Holakoetan, hartutako erabakien berri eman beharko dio Gobernu Batzordeari, egiten den lehenengo bileran.

c) Idazkariak egiten dituen egiaztapenak ikus-onestea.

d) Artikulu honetako a) apartatuarekin zerikusia duten agiriak baimentzea sinaduraz.

e) Judizio-gaietarako ahalduntzeak ematea, Gobernu Batzordeak horretarako baimena ematen dioenean.

f) Gobernu Batzordearen bileretarako eta ohiko nahiz ezohiko biltzar nagusietarako deia egitea.

g) Elkargoaren kontu korronteak irekitzea, bai banketxeetan zein aurrezki kutxetan, eta fondoak mugitzea, diruzainarekin batera.

h) Diruzainak proposatutakoaren arabera, fondoak mugitzeko baimena ematea. Ezein motatako gordailuak eta fidantzak eratzea eta deuseztatzea, diruzainarekin batera.

i) Gobernu Batzordeko kide guztien lana koordinatzea.

30. artikulua.– Lehendakariordearen eskumenak.

Lehendakariordeak lehendakariak eskuordetzen dizkion egiteko guztiak beteko ditu eta lehendakaria ez dagoenean, gaixorik dagoenean edo kargua hutsik dagoenean lehendakariaren egitekoak beteko ditu.

31. artikulua.– Idazkariaren eskumenak.

Bere eskumenak dira:

a) Elkargoko zerbitzuen funtzionamendua ahalik eta ordenatuena izateko behar diren liburuaz arduratzea. Beharrezkoak izango dira Biltzar nagusien eta Gobernu Batzordearen akten liburuak eta agirien sarrera eta irteerarena.

b) Akten liburuak idaztea eta sinatzea, lehendakariaren oniritziarekin, eta egiaztatzeak egitea.

- c) Urteko memoria idaztea.
- d) Elkargoko bulegoen funtzionamendua eta langileen jarduera zaintzea. Laneko arriskuei aurre hartzeko arauak ezagutu eta betetzen direla zainduko beren beregi.
- e) Elkargoko kideen espedienteen izapidetzea kontrolatzea eta elkargoko kideen zerrenda eguneratua izatea une oro. Zehatz, perituen zerrendak egin eta Justiziako Administrazioaren eskura jartzeaz arduratuko da.
- f) Elkargoaren egintza guztietarako zitazio-ofizioak idaztea eta bidaltzea. Elkargoaren egoitzan leku nabarmenean egongo den iragarki taularen erabilpen egokiaz eta eguneratzeaz ere arduratuko da.
- g) Elkargo profesionalak erregistratzea, egoki iritzi bezainbeste, eta, denboraz eta eraz, inskribatutako erakundeei buruzko jakinarazpenak egitea erakunde ofizialei.
- h) Gobernu Batzordeak hartutako erabakiak betetzea.
- i) Datu pertsonalak babesteaz arduratzea Elkargoaren harreman orotan eta, batik bat, elkargokideekin dituen harremanetan.
- j) Bere ardurapeko dokumentu guztiak jagotea eta, lapurtu, galdu edo suntsituz gero, behar diren neurri guztiak hartzea guztiz edo zati batez birjartzeko, betiere hartutako neurrien eragin-garritasuna aldizka egiaztatuz; eta neurriok ezarriz, Gobernu Batzordeak hala irizten badio. Horri dagokionez, elkargoko dokumentuak modu ez zilegian erabiltzeari erreparatu beharko dio, eta dokumentuotan sartzeko kontrola zorrotz egin beharko du.

32. artikulua.– Diruzainaren eskumenak.

Bere eskumenak dira:

- a) Elkargoaren fondoak biltzea, zaintzea eta administratzea eta kontularitza-lanak egitea.
- b) Gobernu Batzordeak agindutako ordainketak egitea eta elkargoaren fondoak mugitzeko agiriak sinatzea, lehendakariarekin batera.
- c) Ekitaldiko emaitzen kontua eta balantzea egitea eta sarreraren eta gastuen aurrekontua egitea, biltzar nagusiak onar ditzan.
- d) Behar diren kontularitza-liburuez arduratzea eta horiek gainbegiratzea.
- e) Egoeraren balantzea egitea, lehendakariak edo Gobernu Batzordeak eskatzen diotenean.
- f) Elkargoaren finantza-egoeraren berri ematea Gobernu Batzordeari.
- g) Bere ardurapeko dokumentu guztiak jagotea eta, lapurtu, galdu edo suntsituz gero, behar diren neurri guztiak hartzea guztiz edo zati batez birjartzeko, betiere hartutako neurrien eragin-garritasuna aldizka egiaztatuz; eta neurriok ezarriz, Gobernu Batzordeak hala irizten badio. Horri dagokionez, elkargoko dokumentuak modu ez zilegian erabiltzeari erreparatu beharko dio, eta dokumentuotan sartzeko kontrola zorrotz egin beharko du.

III. KAPITULUA

GOBERNU BATZORDERAKO HAUTESKUNDEAK

33. artikulua.– Hautesle eta hautagai izateko baldintzak.

1.– Elkargoko betebeharrak beteta dituzten kide guztiek, jardunean ari edo ez, izango dute hautatuak izateko eskubidea, baldin eta gutxienez lau hilabete igaro bada kide egin zirenetik. Hauek, ordea, ez dute eskubide hori izango: zigor baten ondorioz, oro har, elkargoko jarduerak etenda dituztenek edo eskubide horiek murriztuta dituztenek.

2.– Elkargoko eskubide guztiak dituzten kide guztiek dute botoa emateko eskubidea.

3.– Genero berdintasunaren arloko legeak eragiten dituzten printzipioen aplikazioa sustatuko du Elkargoak.

34. artikulua.– Hautagai-zerrendak.

1.– Hautatu behar diren karguen hautagai-zerrendek baino ezingo dute parte hartu hauteskundeetan, eta hautagai-zerrenda bakoitzak berriztatu behar diren karguen kide guztiak jasoko ditu.

2.– Hautagai bakoitzak zein kargu hartuko duen adieraziz egin beharko dira hautagai-zerrendak.

Elkargokideak ezingo dira aurkeztu zerrenda batera baino gehiagora.

35. artikulua.– Hautatzeko prozedura.

a) Hauteskundeetarako deia Gobernu Batzordeak egingo du, eguna baino hogeita hamar egun lehenago gutxienez. Deialdiarekin batera, botorako eskubidea duten kideen behin betiko zerrenda argitaratuko du Elkargoko Idazkaritzako iragarkien ohelean.

Kideek hautesleen zerrenden aurka erreklamaziorik aurkeztu nahi izanez gero, bost eguneko epea izango dute, agerian jarri zirenetik hasita.

Erreklamazioak Gobernu Batzordeak ebatziko ditu, aurkezteko epea amaitu eta hurrengo hiru egunen barruan. Erabakia errekurtsogile guztiei jakinaraziko zaie, hurrengo hamar egunen barruan.

b) Hautagai-zerrendak Elkargoaren Idazkaritzan aurkeztu beharko dira, deialdia argitaratu eta hurrengo zortzi egun naturalen barruan. Zortzi egunok iragan ondoren, aurkeztutako hautagai-zerrendak argitaratuko ditu Gobernu Batzordeak, hurrengo hiru egun baliodunen barruan. Hautagai-zerrenda bakarra aurkezten bada hauteskundeetara, horixe aukeratuko da, eta botazioaren izapideak amaituko ditu. Hurrengo zazpi egunen barruan horren berri emango zaie elkargokideei.

c) Hauteskundeetako Mahaiaren deialdiaren orduan eta lokaletan egingo dira hauteskundeak. Mahaiak lehendakari bat, bokal bi eta idazkari bat izango ditu. Podologorik nagusia izango da lehendakari, eta, gazteena, idazkari. Hautagai-zerrenda bakoitzak kideen artean kontu-hartzaile bat izendatu ahalko du, hauteskundeetako lanetan ordezkari dezan.

d) Hauteskunde-mahaian hautetsontziak egongo dira, zeinak itxi egingo baitira, botoak sartzeko zirrikitua bakarrik utziz.

Hauteskunde-mahaia eratuta, lehendakariak hasiera emango dio bozketari eta ixteko jarritako orduan aretoko ateak itxi egingo dira eta barruan dauden kideek baino ez dute bozkatzerik izango.

Ondoren, dagokion egiaztapena eginda, une horretan ziurtatuko postaz, ezarritako baldintzekin, iritsi diren botoak sartuko dira postontzian. Gobernu Batzordeak hautaketaren ordutegia zehaztuko du; lau ordukoa izango da gutxienez.

e) Kideek txartel batez soilik emango dute botoa. Kidea identifikatuta, txartela lehendakariari emango zaio, eta horrek sartuko du postontzian, hauteslea bertan dela. Mahaiko idazkariak botoa eman dutenak adieraziko ditu kideen zerrendan.

Botoa norberak eman ezean, ziurtatutako postaz eman ahalko da, txartela kartazal itxi batean lehendakariari igorritik. Kartazal hori beste kartazal batean sartuko da, NANaren fotokopiarekin batera. Bigarren kartazala ere itxita igorriko da, igorlea nor den argi eta garbi azalduta, sinaduraz. Ziurtatutako postaz emandako botoak Gobernu Batzordeko Idazkaritzara bidaliko dira, lehendakariarentzat. Hauteskundeak egin baino hiru egun lehenago bidali beharko dira; lehendakariak jasoko ditu bozketa amaitzeko jarritako ordua baino lehen.

f) Bozketa amaitu ostean, jendaurreko zenbaketari ekingo zaio. Txartel hauek baliogabetzat joko dira: bozketaren edukiaz bestelako adierazpenak dituztenak; hauteslearen nahia behar bezala ikustea eragozten duten zirriborroak dituztenak; hautagai-zerrenda bat baino gehiago edo hautagai-zerrenda osagabeak izendatzen dituztenak.

Zenbaketa amaiturik, lehendakaritzak emaitza iragarriko du, eta, ondoren, botorik gehien lortu duen hautagai-zerrenda hautatutzat joko da.

g) Bozketaren garapenari eta zenbaketaren emaitzari buruzko akta bat egingo da, mahaiko kide guztiek izenpetzekoa. Aktaren kopia bat elkargoaren iragarkien taulan jarriko da.

h) Gobernu Batzorderako hautatuak izan direnek hauteskundearen egunetik hasi eta gehieneko 15 eguneko epea izango dute karguaz jabetzeko, eta zin egin edo hitza emango dute zintzotasunez beteko dutela.

i) Izendapenak Euskal Autonomia Erkidegoko dagokion Sailari jakinaraziko zaizkio, 10 eguneko epean, egiten direnetik hasita.

V. TITULUA

EKONOMIA ARAUBIDEA

36. artikulua.– Ondare ahalmena.

1.– Elkargoak, bere helburuak betetze aldera, ondare-ahalmen erabatekoa du ondasunak administratu eta kudeatzeko. Ekonomia-jarduera aurrekontuko prozedurari jarraituz egingo da.

2.– Aurrekontu-ekitaldi bakoitzaren kontu-ikuskapeneko txostena egingo da urtero, Bilzar Nagusiak izendatutako bi elkargokideren edo Gobernu Batzordeak izendatutako kanpoko kontu-ikuskaritza baten bitartez.

37. artikulua.– Elkargoaren ekonomia-baliabideak.

1.– Elkargoaren fondoak baliabide arruntez eta apartekoez osaturik egongo dira.

2.– Baliabide arruntak hauek izango dira:

a) Elkargoaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideen errendimendua.

b) Txostenak, irizpenak, azterlanak eta beste zerbitzu batzuk ordainduta egiteko jartzen diren eskubideak. Ordainsari horiek ez dira, inola ere, elkargoak emandako podologo lanbideari dagozkion zerbitzuetatik etorriko.

c) Sartze-eskubideak eta ohiko eta ezohiko kuotak, derramak barne.

d) Egiaztagiri fede-emaileak ematea.

e) Lanbide-partaidetzagatiko eskubideak.

f) Posible den beste edozein, antzeko ezaugarriak dituen.

3.– Aparteko baliabideak hauek izango dira:

a) Jatorri publiko edo pribatua duten dirulaguntzak edo dohaintzak.

b) Oinordetza dela-eta edo beste edozein kausagatik Elkargoaren ondarean sartzen diren ondasunak.

c) Korporazio-kargak kentzeko kuota bereziak.

d) Legez posible den beste edozein, baliabide arrunta ez dena.

38. artikulua.– Aurrekontuak.

Aurrekontua eta likidazioa urtero egingo dira eta elkargoaren gastu eta diru-sarrera guztiak jasoko dituzte.

39. artikulua.– Batzordea eta Biltzar Nagusia.

Gobernu Batzordeak urtero Biltzar Nagusiari aurkeztu beharko dizkionak, horrek onar ditzan:

a) Aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa.

b) Hurrengo ekitaldirako aurrekontua.

40. artikulua.– Ondasunak likidatzea.

1.– Elkargoa bere helburuak bertan behera uztearen ondorioz baino ez da desegiterik izango, Biltzar nagusiak erabakia hartu ondoren eta estatutu hauetan ezartzen diren arauzko prozeduraren arabera.

2.– Elkargoa desegiteko proposamena egiteko, kideen ehuneko berrogeita hamarrak eskatu beharko dio idatziz Gobernu Batzordeari. Eskaera jasota, Gobernu Batzordeak berehala egingo du kideen ezohiko biltzarrerako deia. Deialdia eta gai-zerrenda 30 egun lehenago argitaratu beharko dira lurralde historiko bakoitzean gehien saltzen diren hiru egunkarietan eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Kide guztiei jakinaraziko zaie zirkularren bitartez.

3.– Elkargoa deseginez gero, Gobernu Batzordeak batzorde likidatzaile gisa jardungo du. Biltzar nagusiari geratzen diren ondasunen destinoa proposatuko dio; ondasunok Podologiarekin zerikusirik duen eta gizarterako interesgarriak diren egitekoak betetzen dituen edozein erakunderi esleituko zaizkio. Erakunde horrek irabazte-xederik gabekoa izan beharko du.

VI. TITULUA

DIZIPLINA-ARAUBIDEA

41. artikulua.– Diziplina jurisdikzioa.

1.– Elkargoak jurisdikzioa du profesionalek, kideek edo gaikuntzadunek beren lanbidean edo elkargoko jardueran egindako hutsegiteak zigortzeko.

2.– Elkargo Ofizialaren Erregistroan inskribatutako sozietate profesionalen diziplina erregimena Estatutu hauetan araututakoa izango da; batik bat, modu berean ezarritako falta eta zehapenei dagokienez, aplikagarriak zaizkien neurrian.

42. artikulua.– Hutsegiteen kalifikazioa.

Hutsegite arinak, larriak eta oso larriak daude.

1.– Hutsegite arinak dira:

a) Estatutuetako edo araudietako aginduak edo Gobernu Batzordearen erabakiak betetzera-koan arduragabe aritzea, maila apalean.

b) Lankideak begirunez ez tratatzea, ondorio larririk gertatzen ez bada.

c) Egiaztapen edo informazio eskaera bati ez erantzutea, eta horren ondorioz, gaixoa arriskuan jartzea.

d) Artikulu honen 2. paragrafoan jarritako hutsegiteak, larritzat jo ezin direnak.

2.– Hutsegite larriak dira:

a) Egiteko profesionalak ez betetzea, eta horrek jardun profesionala eskatzen edo hitzartzen dutenei kaltea eragitea.

b) Lanbide bereko beste profesional batzuen edo horien gobernu organoen eta lanbideagatik harremanetan dauden pertsonen edo erakundeen duintasuna larriki iraintzea eta horiek fisikoki erasotzea.

c) Administrazio- edo jurisdikzio-agintari eskudunek intrusismo profesionaltzat edo lehia desleialtzat jotako jokabideak estaltzea, edo arauz kanpoko beste lanbide-jarduera batzuk estaltzea, halakoen berri izanez gero, Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera.

d) Sekretu profesionala, erru edo utzikeria larritzat, larriki urratzea, eta hirugarrenago bat kaltetzea.

e) Kontseiluen edo elkargo profesionalen –edo horien organoen– ohiko jarduera oztopatzen edo eragozten duten ekintzak.

f) Egia esan gabe txostenak eta egiaztagirak egitea.

g) Titulu profesionalen bat edo eskumenen bat adieraztea, dena delako hori eduki gabe.

h) Gutxienez bost arau-hauste arin egitea bi urteko epean.

i) Lanbide-sozietate batean bazkide profesional gisa aritzea bateraezintasun- edo ezgaitasun-kausaren bat izanda.

j) Lanbide-sozietate bat sortzea indarreko legeriak ezartzen dituen baldintzak bete gabe.

k) Lanbide-sozietate bat sortzea ordenamendu profesional eta deontologikoaren baldintzak bete gabe.

3.– Hutsegite oso larriak dira:

a) Egiteko profesionalak ez betetzea, eta, ondorioz, jardun profesionala eskatzen edo hitzartzen dutenei kaltea egitea.

b) Lanbidean jardutean doluzko delituak egitea; ez da kontuan hartuko zenbateraino parte hartu duen.

c) Urte biko epean, gutxienez bi hutsegite larri egitea. 2. apartatuko e) letran adierazitako hutsegitea salbuetsi egiten da paragrafo honetatik.

d) Sekretu profesionala, erru edo utzikeria larriz, larriki urratzea, eta hirugarrengoa bat kaltetzea.

e) Gaixoei, maltzurki edo asmo txarrez, arretarik ez ematea.

43. artikulua.– Zehapen-prozedura.

Edozein diziiplina-zigor jartzeko, dagokion espedienteak prestatu eta izapidetu beharko da lehenik.

1.– Eskumena: Diziplinako ahalmena hauek dute:

a) Podologo Elkargoen Kontseilu Nagusiak, eraginpeko pertsona Gobernu Batzordeko kide denean.

b) Gobernu Batzordeak, elkargokideen gainerako kasuetan.

2.– Espedientearen formak: zigor-espedienteak bete beharreko arauak:

a) Gobernu Batzordearen erabaki batek emango dio hasiera prozedurari, bai bere ekimenez bai edozein kidek, pertsonak edo erakunde publikok nahiz pribatuk egindako salaketaren ondorioz.

Gobernu Batzordeak salaketa bat jasotzen duenean edo hutsegitearen bat egin dela dakienean, isilpeko informazioa izapidetzea ebatzi ahalko du, espedienteari hasiera ematea edota egintzak, ondoko beste errekurtsorik gabe, artxibatzea ebatzi aurretik.

Espedienteak izapidetzeari buruzko egintza guztiak instruktoreak egingo ditu. Instruktoarea Gobernu Batzordeak aukeratuko du kideen artean. Espedienteari hasiera eman zaiola eta instruktoreak izendatu dela jakinaraziko zaio espedienteak egin zaion kideari.

b) Instruktoeari dagokio egitateak argitzeko egintzak eta probak burutzea eta zigor daitezkeen erantzukizunak zehaztea. Burututako jarduerak ikusita, karguen plegu bat egingo da; bertan, egotzitako egitateak azalduko dira edo, bestela, espedienteak bertan behera utzi eta artxibatzeke proposamena adieraziko da.

c) Karguen plegua interesdunari jakinaraziko zaio eta hamabost egun balioduneko epea emango zaio erantzuteko. Deskargu-izapidean, interesdunak erabiliko dituen probak aurkeztu, eta, beharrezkoa bada, proposatu beharko ditu.

d) Karguen plegua erantzunda, edo hori egiteko epea igarota, eta dagokion proba eginda, instruktoreak erabaki-proposamena egingo du. Erabaki-proposamen hori interesdunari jakinaraziko zaio, hamabost egun balioduneko epean bere defentsarako egokituz jotzen duena alega dezan. Epe horretan, halaber, burututako egintzak jakinaraziko zaizkio.

e) Erabaki-proposamena, egintza guztiekin, Gobernu Batzordeari igorriko zaio, dagokion erabakia har dezan.

f) Erabaki zigortzaileek probatutako egintzen zerrenda, hutsegiteen zehaztapena eta larritasunaren kalifikazioa jasoko dituzte. Egintzen zerrendak espedientean egindako karguen pleguaren arabera izan beharko du.

44. artikulua.– Zehapenak.

1.– Hutsegite oso larriek zehapen hauek izan ditzakete:

a) Lanerako gaitasungabetzea, urtebete eta egun baterako gutxienez eta hogeitun urterako gehienez, azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 17. artikulua xedatutakoari jarraikiz, eta epe berdineko baja-suspentsioa Lanbide Sozietateen Erregistroko Lanbide Sozietatean jardun ahal izateko.

b) 3.525,01 eta 35.250 euro arteko isuna.

2.– Arau-hauste larriek honako zehapen hauek ezarriko zaizkie:

a) Lanerako gaitasungabetzea, urtebete eta egun baterako gutxienez eta hogeitun urterako gehienez, azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 17. artikulua xedatutakoari jarraikiz, eta epe berdineko baja-suspentsioa Lanbide Sozietateen Erregistroko Lanbide Sozietatean jardun ahal izateko.

b) 352,51 eta 3.525 euro arteko isuna.

3.– Arau-hauste arinei honako zehapen hauek ezarriko zaizkie:

a) Ohartarazpena.

b) Isuna: gehienez, 352,50 eurokoa.

Elkargoak diziplina-ahalmena erabiliz jasotzen dituen isun-ordainketa guztiak etengabeko lan prestakuntzako jarduerak ordaintzeko erabiliko dira. Helburu horrekin, eta dagokion prozedura erabiliz, beharrezko neurriak hartuko dira kasu bakoitzerako ezarrita dagoen arautegiaren arabera.

4.– Arau-hauste bategatik egileak diru-etekina atera badu, isuna handiagoa izango da: etekin hori zenbatekoa izan den kalkulatu ondoren –aurreko gehieneko kopuruekin alderatuko da–, gutxienez etekina eta gehienez etekinaren bikoitza gehitu beharko zaio ordaindu beharreko isunari.

5.– Elkargoak jakinarazpenetarako dituen barruko eta kanpoko bideak erabiliz emango da hutsegite oso larriengatik ezarritako zehapenen berri, horien eragingarritasuna erabatekoa izan dadin.

45. artikulua.– Preskripzioa.

1.– Arau-hauste oso larriak hiru urtera preskribatuko dira, larriak urte bira eta arinak urtebetera.

2.– Preskripzioa eten egingo da diziplina-espedientea hasten bada (interesdunari jakinarazi egin beharko zaio). Epea berriz ere iragango da, baldin eta sei hilabetez baino gehiago geldirik egon bada, arau-hausleari egotzi ezin dakioken arrazoi bategatik.

46. artikulua.– Baliogabetzea.

Hona epeak: urtebete arinentzat, urte bi larrientzat eta hiru urte oso larrientzat.

VII. TITULUA

ARAUBIDE JURIDIKOA

47. artikulua.– Erabakiak jakinaraztea.

1.– Elkargoaren biltzar nagusiaren eta Gobernu Batzordearen erabakiak, eta lehendakariaren eta Gobernu Batzordeko gainerako kideen erabakiak, edozein gairi buruzkoak –diziplinari buruzkoak ere bai–, kideei jakinarazi beharrekoak, elkargoari jakinarazitako lanbide-helbidean jakinaraz daitezke.

2.– Jakinarazpena ezin bada egin Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluaen 1. eta 2. apartatuetan aurreikusitako moduan, jakinarazpena egintzat joko da Elkargoan horretarako jarritako iragarki-taulan jarri eta hamabost egunera.

48. artikulua.– Errekurtsoak.

1.– Lehendakariaren edo Gobernu Batzordeko gainerako kideen akordio nahiz erabakien aurka errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio batzorde horri, jakinarazten direnetik hasi eta hamabost eguneko epean; ofizios berraztertzen ez bada, biltzarrak egiten duen lehenengo bilkuran ebatziko da errekurtsoa, beste izapiderik egin beharrik gabe.

2.– Gobernu Batzordean eta biltzar nagusian hartutako erabakien aurka, eta horien aurka jarritako korporazio-errekurtsoak ebatzen dituztenen aurka, errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Podologoien Elkargoen Kontseilu Nagusiari. Aurkezteko epea hilabetekoa izango da, argitaratzen denetik hasita edo kideei edo eraginpeko pertsoneri jakinarazten zaienetik hasita.

3.– Gobernu Batzordeak errekurtso arrunta, aurrekariekin eta dagokion txostenarekin batera, Podologoien Elkargoen Kontseilu Nagusiari igorriko dio, aurkezten den egunetik hasi eta hamar eguneko epean, baldin eta erabakia hartu zuen organoak epe horretan berrezartzen ez badu.

4.– Egoera pertsonalei eragiten dieten erabakiak interesdunei jakinarazi beharrekoak izango dira.

5.– Gobernu Batzordeak, arrazoiak emanda, errekurritutako egintzaren gauzatzea eten egin dezake, errekurtsogileak hala eskatzen badiu.

6.– Podologoien Elkargoen Kontseilu Nagusiak, egoki iritzitako txostenak egin ondoren, ebatzen espresua eman beharko du errekurtsoa aurkeztu eta hurrengo hiru hilabeteen barruan. Ebatzen horrek amaiera emango dio administrazio-bideari.

49. artikulua.– Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna.

1.– Elkargoko organoen egintza eta erabakiak erabat deusezak izango dira, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47. artikuluan aurreikusitako kasuren bat gertatzen denean.

2.– Aipatu legeko 48. artikuluan jasotako kasuetan, deuseztagarriak izango dira elkargoko organoen egintzak eta erabakiak.

3.– Gobernu Batzordeak erabat deusezak diren egintzak eten egin beharko ditu eta errekurtsoa aurkeztuko du horien gainean.

50. artikulua.– Eskumena.

Administrazioak eskuordetutako eskumenak edo ahalmenak erabiliz elkargoko organoek ematen dituzten administrazio-egintzen aurka aurkezten diren errekursoak ezagutzeko eskumena du administrazio autonomikoak, aurreko apartatuetan agindutakoa gorabehera.

51. artikulua.– Erregistroko betebeharrak.

Elkargo Ofizialak Euskal Autonomia Erkidegoko Profesionalen Elkargoei buruzko Legeak aurreikusten dituen erregistro-betebeharrak beteko ditu.

VIII. TITULUA

SARIEN ETA GORAIPAMENEN ARAUBIDEA

52. artikulua.– Eskumena.

Elkargo Ofizialaren Gobernu Batzordeak «ohorezko ikurra» duen «Ohorezko Elkargokidea» izendatzeko proposamena egin diezaioke Biltzar Nagusiari, hain zuzen ere korporazioaren edo lanbidearen zereginetan lortutako merituengatik ohore hori merezi izan dutenen alde. Estatu mailako Ohorezko Elkargokidea izendatzeko proposamena ere egin diezaioke Podologoien Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiari.

53. artikulua.– Irizpide orokorrak.

1.– Biltzar Nagusia izango da –Gobernu Batzordeak proposamen egin eta gero– Ohorezko Elkargokidearen –ohorezko ikurrarekin– izendapena egiteko eskumena duen organoa.

2.– Ohorezko Elkargokide –ohorezko ikurrarekin– izendatu ahal izango dira –podologoak izan edo ez– organo eskumendunaren iritziz nahiko meritu dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak.

3.– Izendapen horiek ematerakoan, saritu gura diren lagunen lan azpimarragarria eta merituzkoa baloratuko da, medikuntzaren edo, oro har, podologiaren alde edo defentsan egindako jarduerak direnak direla.

a) Lanbide ariketa eredugarria.

b) Etika profesionalaren edo Podologia Korporazioaren interes gorenaren defentsan burututako lana.

c) Banakako egintzak, baldin eta zientziaren, lanbidearen, gizartearen edo gizatasunaren ikuspegitik apartekoak badira.

54. artikulua.– Prozedura.

1.– Gobernu Batzordeak egingo du Ohorezko Elkargokidearen izendapena. Elkargo Ofizialeko kideek euren iradokizuna aurkez dezakete.

2.– Erabateko gehiengoz hartuko du erabakia –isilpeko bozketaz– organo eskumendunak, eta dagokion deialdiko gai-zerrendan utziko da jasota proposamena.

3.– Ohorezko Elkargokide izendatu ostean, Elkargo Ofizialak argitaratu egingo du bere zabal-kunde bideak erabiliz, eta alderdi interesdunari ohorezko ikurra erabiltzeko ahalmena emango dion izendapena egingo dio modurik solemneenean.

55. artikulua.– Ohorezko Elkargokidearen ikurra.

Ohorezko ikurrak intsignia bat izango du, non Euskadiko Podologiako Elkargo Ofiziala izena jasoko baitu.

56. artikulua.– Ohorezko Elkargokideen Erregistro Bereziak.

Ohorezko Elkargokideen erregistro berezi bat egongo da Elkargo Ofizialean, non ohorezko ikurra duten elkargokideak egongo baitira jasota, baita izendapen hurrenkeraren zenbakia eta saria eman zaion pertsona fisiko edo juridikoaren izena ere.

57. artikulua.– Beste sari batzuk.

Barne araubidea behar den moduan araututa, beste goraipamen eta sari batzuk sortu ahal izango dira, Podologian jarduteak dakartzan ohorea, ospea eta goi-balioak saritu eta sustatzeko.

IX. TITULUA

LANBIDE SOZIETATEEN ARAUBIDEA

58. artikulua.– Lanbide Sozietateak.

1.– Lanbide-sozietateen Erregistroa sortu da Elkargoaren egoitzan; erregistro horretan sartuko dira martxoaren 15eko 2/2007 Legearen babesean sortutako sozietateak, Merkataritza Erregistra-tzaileak Elkargolari jakinarazten dizkionak, hain zuzen ere, lege horretan ezarritakoaren arabera.

2.– Erregistroan txertatu beharreko datuak, 2/2007 Lege horretako 8.2 artikuluan xedatzen denaren arabera, honako hauek dira:

a) Sozietatearen izena eta helbidea.

b) Sozietatearen eraketa-eskritura publikoaren eguna eta identifikazio-oharra, baimena eman duen notarioa, eta sozietatearen iraupena, epealdi zehatz baterako eratuz gero.

c) Sozietatearen helburu diren jarduera profesionalak.

d) Elkargokide profesionalen eta ez profesionalen datuak; elkargokide-zenbakia eta zein elkargo profesioaletakoa den.

e) Sozietatearen administrazio eta ordezkartzaren ardura eman zaien pertsonen datuak, bazkide profesionalak diren ala ez adierazita.

3.– Elkargoak –arauetan xedatutako eran– Justizia Ministerioari eta Autonomia Erkidegoko organo eskudunari bidaliko die Lanbide Sozietateen Erregistroan egindako inskripzioen zerrenda, horretarako sortuko den Interneteko atarian horren berri eman ahal izateko.

X. TITULUA

ESTATUTUAK ERABERRITZEA

59. artikulua.– Estatutuak eraberritzea.

Profesionalen Elkargo eta Kontseiluen eta Tituludun Lanbideen Erregistroaren Arautegiari buruzko otsailaren 3ko 21/2004 Dekreturen 38. artikuluan eta horrekin bateragarri direnetan

xedatutakoari egokitu zaio, zorrotz, estatutu hauen eraberritzea. Honelakoak beharko dute izan eraberritze-arauek:

1.– Elkargoaren Gobernu Batzordeari dagokio elkargo profesionalen estatutuak prestatzea. Elkargokideena eurena izango da ekimena. Azken kasu honetan, elkargokideen % 20k egon beharko du aldaketa ekimenaren alde; % 10ek, jarduneko elkargokideak badira.

2.– Elkargoko Biltzar Nagusiari dagokio estatutuen aldaketa onartzea. Onartu aurretik, jendaurreko argibideetarako epea irekiko da, elkargokideek eta dagokion Kontseiluak hilabeteko epean zuzenketak aurkez ditzaten. Jendeari jakinarazteko aldia ere irekiko da, iragarkiak ipiniz Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta elkargoaren lurralde-eremuan gehien saltzen diren bi egunkarietan.

3.– Onartu eta hilabeteko epean, elkargo ofizialak elkargo profesionalen arloan eskumena duen sailburuari bidaliko dizkio honako hauek: onartutako estatutuen testu osoa, osoko bilkurak aldaketa onartu duela egiaztatzen duen agiria, eta, aurreko paragrafoan aurreikusitakoaren arabera, jendaurrean jarri dela egiaztatzen duen agiria, betiere lehendakariaren oniritziarekin.

AZKEN XEDAPENA

Euskadiko Podologiako Elkargo Ofizialaren Gobernu Batzordeari ahalmena ematen zaio, indarreko arauen arabera, beharrezko jarduerak egin ditzan, estatutu hauek erregistratu, argitaratu eta legeztatzeko.